

**2019ko Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren 11. Nazioarteko
Jaialdian parte hartzeko Oinarriak**

Izen-emateko epea: 2019ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 15era da.

Jaialdiko parte-hartzeak, oinarri hauetan dauden baldintzen onarpena dakar, salbuespenik gabe.

Jaialdiko egoitza nagusia Bilboko Azkuna Zentroan (Bilboko Alhondegia) kokatuta dago eta data ofizialak **2019ko urriaren 17tik 24ra arte** dira, nahiz eta abuztuan proiektzioekin hasi eta azaroan palmaresarekin amaitu. Guztira, gutxienez 20 egoitza izango dira, eta horietatik 10 bigarren hezkuntza eta lanbide heziketako ikastetxeak dira.

JAILADIAREN DESKRIBAPENA

Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia Kultura, Communication y Desarrollo KCD GGKEk antolatzen du, Komunikazioa eta Kulturaren bidez garapen humanoa, kulturartekoa, zuzena eta iraunkorra sustatzea helburu duen elkarteak.

2018ko making of-a ikusteko klikatu estekan

2018ko Bilboko "Film Sozialak" Zine Ikusezinaren 10. Nazioarteko Jaialdiaren Making

Of-a:

<https://vimeo.com/292704642>

Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak aniztasuna zein giza erantzukizuna berezko dituen zinea urtero erakusten du, zirkuitu komertzialetan nekez ikus daitezkeen filmak programatzen dira eta. Jaialdiak lau ardatz tematiko nagusi ditu oinarri: Garapen Iraunkorra, Giza Eskubideak, Kulturartekotasuna eta Genero Ekitatea.

Bere etengabeko lanari esker, Jaialdia nahitaezko hitzordu bihurtu da garapenera bideraturiko lankidetzari. Jaialdia, ikus-entzunezko lanen bidez, gizakien aldarrikapen eta arazo ezberdinak islatzen dituen komunikazioa sustatzen duten pertsona guztientzako aitorpen puntua ere da.

NORK HAR DEZAKE PARTE?

Bakarka zein taldeka, munduko edozein herritako lanak aurkez daitezke, nazio edo jatorria edozein izanda ere. Pertsona adingabeek arduradun dituzten pertsona helduen (ama, aita, tutoretza) beharrezko baimena eskaini beharko dute.

Pertsona edo talde bakoitzak bat edo hainbat lan aurkez ditzake, baldin eta egiletasun-eskubideak edo banaketa-eskubideak badituzte. Jaialdia ez da arlo honetatik ondorioztatutako arau-hausteen erantzule izango.

Jaialdiaren kategoriaren batentzat egokitzen jotzen den eta formatu digitalean dauden film guztiek parte hartu ahal izango dute.

JAIALDIAREN KATEGORIAK ETA SARIAK

El festival cuenta con cuatro ejes temáticos que aglutinan todas las obras del festival: Equidad de Género, Derechos humanos, Desarrollo Sostenible e Interculturalidad. Asimismo, se premian las siguientes categorías.

- Katetoria tematikoak
- Sustapenerako kategoriak
- Ikus-entzuleen parte-hartzeko kategoriak

Jaialdiko sariak:

Garapen Iraunkorra Saria (2000€): atal honetan parte hartuko duten lanek garapen ereduak eta hauek duten inpaktua aztertuko dituzte arlo sozial, politiko, ekonomiko eta ingurugiroan. Aldi berean, honen aurka giza ongizate eta iraunkortasuna sustatzeko sortzen diren proposamen alternatiboak aztertzen dituzten lanek ere parte hartuko dute.

Giza Eskubideak Saria (2000€): gizabanakoko eta kolektiboen giza eskubide eta oinarritzko askatasunen errespetua, bermea eta sustapena lortzeko borrokatzen duten

lanek parte hartuko dute. Gainera, korrante politiko autoritario, elitista, arrazista, xenofobo, homofobo zein edozein moduko diskriminazioaren aurrean oposizioa azaltzen duten lanek hemen izango dute euren tokia. Baita pobrezia eta baztertze soziala salatzen duten lanek beraien tokia hemen aurkituko dute.

Genero Ekitatea Saria (2000€): kategoria honek gizartean berdintasunaren aldeko aldaketa sustatzeko tresnak sortzea eta horren bitartez bidezkoa kultura eta ikuspuntua eraikitzen laguntzea du helburu. Atal honetako lanek emakume eta gizonen arteko ezberdintasunaren inguruan hausnarketa eragin behar dute edo sistema patriarkalari alternatiba modelo berriak aurkeztu behar dituzte.

Kulturartekotasuna Saria (2000€): atal honetako lanek munduan dauden kulturen aniztasun zein aberastasuna eta kulturen arteko elkarlan edo elkarbizitza aurkez dezakete, giza migrazioekin loturiko gaiak kasu. Aldi berean, munduan jasaten den edozein motatako arrazakeria, segregazioa, xenofobia eta bestelako diskriminazioa salatzen duten lanek parte hartuko dute.

Sustapenerako kategoriak:

Emakume batek burututako Lan Onenari Saria (2000€): atal honek funtzio bat du, emakume zuzendariak aurkeztea eta ikus-entzuneko munduan emakumeen parte hartzea sustatzea, gizonen aurrean minoria dira eta.

Bertan, jaialdiko kategoria tematikoetan dauden film guztiak sartzen dira, baldin eta emakumezkoek zuzendutako edo elkar zuzendutako lanak badira.

Euskaraz egindako Lan Sozial Onenaren Saria (1000€): atal honetan jaialdiko edozein kategoria tematiko lantzen dituzten euskarazko lanak zein euskarazko azpitituluak dituzten lanak onartuko dira.

Zinema Ikusezina-Film Sozialak Saria (2000€): Honetan edozein kategoria tematikotan sartutako lan guztiak (euskaraz edo gazteleraz) biltzen ditu eta jaialdiaren irizpideen arabera zuzendari baten lana sostengatzea du helburu.

Ikus-entzuleen parte-hartzeko kategoriak:

Balioetan Oinarritutako Hezkuntza Saria (2000€): kategoria honetan, jaialdiaren egoitza diren batxilergo zein lanbide heziketako hezkuntza-zentroetan proiektatzen diren lanak sartzen dira, hauek edozein kategoria tematikoren parte izan daitezke. Egoitza hauetan film laburrak proiektatzen dira soilik. Helburua, ikasleen artean zinema soziala eta gizarte-balioak bultzatzea da. Film irabazlea ikasleen bozketa bidez erabakitzen da.

Ikus-entzuleen Saria (2000€): kategoria honek ikus-entzuleen parte-hartzea sustatzen du, ikusten dituzten lanak balioesteko eta errealizadoreen lanei babesa emateko aukera izan dezaten euren bozka emanaz. Kategoria honek jaialdiaren kategoria tematiko guztiak biltzen ditu, hezkuntza zentroetan soilik proiektatzen diren lanak salbuespen. Horiek euren sari propioa baitute.

Lanek euren kategoria tematikoari dagokion sariaz gain, hizkuntzaren, zuzendariaren eta egoitzaren arabera egokitu ahal zaien beste sariak eskuratzeko aukera izango dute.

Sariak zergei eta Espainiako legeak jarritako erregulazioei lotuta daude (BEZa edo PFEZa). Sari bakoitzak eurotan daukan balioa erakunde bakoitzak eskainitako diruaren arabera alda daiteke.

BALDINTZAK ETA IZENEMATEA

- Lanek, gutxienez jaialdiaren kategoria tematikoren bat tratatu behar dute.
- Fikzio, dokumental zein animazio lanek lekua izango dute, film laburrak edo luzeak izan.
- Parte hartzen duten lanen hizkuntza euskara edo gaztelera izan behar da, jatorrizkoa edo azpтитuluen bidezkoa.
- Lehiaketarako lanak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera eginak egon behar dira eta ezin dira lehiaketara bidali aurreko edizioetan jada inskribatu baziren.

LANAK BIDALTZEKO FORMAK

www.kcd-ongd.org web gunean eskuragarri dagoen formularioaren bidez izen-ematea ezinbestekoa da, lanen bidaltzeko era edozein izanda ere.

Lanak lehiaketara formatu fisiko edo digitalean bidali daitezke. DVD edo pendrive materialen bidaltzeko eta itzultzeko gastuak parte-hartzailearen kontu izango dira.

Era desberdinetan bidal daitezke jaialdirako lanak:

- a) www.festhome.com eta www.clickforfestivals.com plataformen bidez (HD formatua onartua).
- b) Vimeo-ren bidez edo Youtube-ren bidez, beti deskargatzeko modua erabilita, iraungitze-datarik gabekoa.
- c) Dropbox, Mega, Wettransfer, Myaribridge online platafomen bidez bideoaren esteka cineinvisible@kcd-ongd.org emailera bidaliz.
- d) Postaz ondorengo helbidera:

“Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren Bulegoa:

Kultura, Communication y Desarrollo KCD (ONG-GKE)

Innobak – Inguralde eraikina. Beurko Viejo, 38 pabilioia, 12 bulegoa

48902 Barakaldo – Bizkaia, Espainia

Garrantzitsua: Nazioarteko bidalketerako gutunazalean idatzi

“BALIO KOMERTZIALIK GABEKOA, ERABILERA KULTURALERAKO BAINO EZ”.

- e) KCD GGKE-k egokitzen joko duen eta publikoki jakinaraziko duen beste edozein bide.

2019ko maiatzaren 15etik aurrera bidalitakoak eta/edo aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten edo beharrezko dokumentazioa ez duten lanak, Jaialdiaren berezko irizpideen arabera soilik sartu ahalko dira jaialdira.

KCDk aurrez hautatutako lanei hurrengo dokumentazioaren bidalketa eskatuko die:

- 1. Zuzendariaren argazki bat.
- 2. Zuzendariaren Kurrikuluma eta Filmografia.

3. Lanaren kalitate oneneko 3 fotograma. Jasotako argazkirik onenak hautagaiak izango dira:
 - Jaialdiko kartela irudikatzeko.
 - Bilboko Metroko geltokietan kokatuko den 2019ko Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren 11. Nazioarteko Jaialdiaren inguruko erakusketan parte hartzeko.Jasotako fotograma edo argazkietako bat jaialdiaren karteletako irudi nagusi gisa aukeratuz gero, 150€ ordainduko litzaizkioke zuzendariari (edo zuzendariei) izen-emate orrian eskainitako informazioan oinarrituta. Ordainsaria zergei eta Espainiako legeak jarritako erregulazioei lotuta dago (BEZa edo PFEZa).
4. Filmaren izen-ematearen fitxa zehatzagoa, Jaialdiak emandakoa.
5. Lanaren proiektzio-bertsioa (kalitate hoberenean eta ur-markarik gabe)

Antolaketak dioen epean, dokumentazio honen bidalketa egin ez duten lan guztiak baztertuko dira.

AUKERAKETA

Aukeraketa Batzordea modu parekatuan osatuta egongo da eta jaialdian parte hartuko duten filmak aukeratuko ditu.

Lanak hurrengo irizpideen arabera aukeratuko dira:

- Jaialdiaren ardatz tematikoetara egokitzea
- Kalitate teknikoa
- Jaialdiaren xede diren ikus-entzuleei egokitzea

Aurreko irizpideez oharkabetu gabe, aukeraketan ekintza positiboak hartuko dira hurrengo lanekin:

- Hegoaldeko herrietako zuzendariak egindakoekin
- Emakumezkoek egindakoekin
- Euskaraz egindakoekin
- Entzumen - ezgaitasundun pertsonentzat azpitituluak eta/edo audiodeskribapen sistema dituzten lanak

Jaialdiko batzorde hautatzaileak, jasotako lanak zein ataletan sartzen diren erabakitzeke edo atal aldaketa proposatzeko askatasuna izango du, aurretik zein ataletan inskribatuak izan diren kontuan izan gabe. Bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Behin-betiko aukeraketa 2019ko uztailaren amaieraren inguruan jakinaraziko da. Behin aukeraketa-batzordearen erabakia komunikatuta, lana ezingo da Jaialditik erretiratu. Behin Jaialdiaren programazioa eginda, proiektio lekuak eta datak jakinaraziko dira (2019ko irailean gutxi gorabehera)

Jaialdiak, aukera duen neurrian eta bere irizpideen arabera, aukeratutako lanen ordezkarien presentzia bultzatuko du jaialdian. Horretarako, garraioa, ostatuko eta/edo aipaturiko ordezkarien beste mantenuko gastuez arduratuko da.

EPAIMAHAIA

Genero-berdintasunaren aldeko ekimenak aurrera eramateko asmoz, epaimahaiaren %66a emakumeek osatuko dute. Epaimahaia osatzen duten kideak komunikazioko eta ikus-entzunezko arlokoak dira, eta elkartasuna zein garapen lankidetzara edo beste arlo kultural eta/edo artistiko batzuetan lanetan dabiltzanak izango dira. Balioetan Oinarritutako Hezkuntzaren, Ikus-entzuleen eta Film Sozialak sarietan izan ezik, epaimahaiak lan irabazleak erabakiko ditu kategoriatan. Kategoriatan guztietako sarien erabakiak apelaezinak izango dira.

ERABILERA BAIMENA

Lehiaketara edozein lan aurkezten duten egileek eta/edo ekoizleek KCD-GGKri hurrengo jarduerako burutzeko baimena eskaintzen dio:

- Lana Jaialdian zehar beharrezkoa den aldi guztietan erreproduzitzeko, ikuskatzeko eta publikoari irekitako emanaldietan proiektatzeko festibala irauten duen denboraldian, 2019ko abuztutik azarora (aurre-jaialdia, jaialdia eta jaialdia ostean), jaialdiaren egoitza guztietan.
- Lana Jaialdian erakusteko beharrezkoak diren formatuetara moldatzeko.
- Lana jatorrizkoa ez den beste hizkuntzetara bikoizteko edo azpigituluak jartzeko.

- Lanaren irudi eta/edo zatiak prentsa-txostenetan, karteletan eta/edo Jaialdiaren web-orrian sartzeko, promozioa burutzeko asmoz.
- Egile zein ekoizleek Jaialdiari baimena emango diote hautatutako filmen materiala, ikus-entzunezkoa zein inprimatua, honen promozio eta zabalkunderako (katalogoak, spotak, webguneak) erabil dezan.

Aipaturiko baimena ezinbesteko baldintza da Jaialdian parte hartzeko. Ez du kontraprestazio ekonomikorik ekartzen, lana inskribatzen duenarentzat ezta beraren gaineko eskubideak dituenarentzat ere.

Lehen aukeraketa egiteko bidaltzen diren kopiak KCD Kultura, Communication y Desarrollo GGKE antolatzailearen artxibategian gordeko dira. KCD erakundeak Jaialdiaz haragoko erabilera didaktiko nahiz kulturalerako lanen bat aukeratuko balu, harremanetan jarriko litzateke egileekin baimena eskatzeko.

2019ko Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren 11. Nazioarteko Jaialdia

Garapen Iraunkorranzko transformazio sozialerako komunikazioa.

KCD, Kultura, Communication y Desarrollo

Tlfn/Fax: +34 946024668 - cineinvisible@kcd-ongd.org

www.kcd-ongd.org

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, lanen izen-ematearen unean jasotzen diren datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla jakinarazten da. Fitxategiaren ardura KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO "KCD-GGKE"ri dagokio.

Fitxategia jaialdiko izen-ematetik ondorioztatutako jarduera administratiboak bideratzeko da, hala nola prozesuen gaineko informazioa aurrerantzean igortzeko. Eskatutako datuak ez zaizkio beste inori beste ezertarako utziko, horretarako zuk zeuk aldeztu aurretik zehazki baimena eman ezean.

Fitxategian jasotako zuri buruzko datuak eskuratu, deuseztatu, zuzendu eta haien aurka jotzeko eskubidea duzu. Hiru bide dituzu horretarako: eskabidea posta elektronikoz bidaltzea info@kcd-ongd.org helbidera, 94 602 46 68 telefono-zenbakira deitzea edo posta arrunta erabiltzea: KCD-ONGD. Beurko Viejo, Pabellón 38 - 12 bulegoa, 48902 – Barakaldo.